

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 6285

*AGINDUA, 2021eko azaroaren 22koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Basque Know How Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.*

2021eko maiatzaren 13an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko erregistro telematikoa eskabide bat jaso zen, Basque Know How Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko.

Eskabidearekin batera, estatutuen aldaketari buruzko eskritura publikoa aurkeztu zen, zeina 2021eko maiatzaren 5ean egiletsi baitzen, Bilboko notario Raquel Ruiz Torres andrearen aurrean, Carmen Velasco Ramírez andrearen ordezkotza gisa aritzen zena (protokolo-zenbakia: 727).

Eskritura publiko horrekin batera Garazi Vadillo Elorza andreak –patronatuko idazkari gisa, eta presidentearen oniritziarekin– 2021eko apirilaren 30ean emandako ziurtagiria aurkeztu zuen. Horretan, 2021eko apirilaren 27an patronatuak egindako bileraren berri eman zuten, non bertaritutakoek aho batez onartu zuten estatutuen fundazioaren helburuei buruzko 3. artikulua aldatzea, genero-ikuspegia txertatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren zerbitzu teknikoek espedientea aztertu dute eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen lehenengo Xedapen Iragankorrak ezartzen duenez, fundazioek lege horretara egokitu beharko dituzte beren estatutuak, lege hori indarrean jartzen denetik bi urteko epean.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutuetan egindako aldaketak bat datoz aplikatutakoak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

Aipatutako arauak eta aplikatutakoak diren gainerako arauak ikusita, honako hau

### EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Basque Know How Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuen helburuei buruzko

2021eko abenduaren 17a, ostirala

3. artikulua aldatzea, fundazioaren helburuei buruzkoa genero-ikuspegia txertatzeko. Fundazioaren patronatuak erabaki zuen aldaketa egitea, 2021eko apirilaren 27an; betiere, 2021eko maiatzaren 5ean Raquel Ruiz Torres Bilboko notario andrearen aurrean, Carmen Velasco Ramírez andrearen ordezkoko gisa, egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorritik (protokolo-zenbakia: 727).

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 22a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.